

Zinema

Dantzan joango dira tabuak

Saioa, Iñigo, Ana, Dani, Urtzi, Alberto, Zalaoa, Haritz, Joannes eta Mikel: Despertar los Sentidos dantza taldeko kideak. Oriñongo hondartzara (Castro, Espainia) joan dira ikuskizun baten prestatzeko. Beraiekin, John Andueza zuzendaria buru, *Simplemente* filmeko ekipoa, dantzarien egunerokoa grabatzeko asmoz. Joan den astean estreinatu zuten down sindromedun gazteak protagonista dituen dokumentala.

GORKA BEREZIARTUA

ETA NOLA estreinatu gainera: Donostiako Victoria Eugenia antzokia beteta otsailaren 16an, filma bukatu eta protagonistak agertokira azaldu zirenean: ikusleen txaloak, zaparrada desordenatua hasieran, dantzarako erritmo bihurtu ziren pixkanaka. Zer gehiago behar zuten Despertar los Sentidos-ekoek? Gehien gustatzen zaiena egiten bukatu zuten: dantzan.

Baina bukaeratik hasi gara kontatzen, eta garrantzitsuen lehenago etorri zen: 80 minutuz taldeko partaideen egunerokoa sartu ginen *Simplementer* esker. Pelikulak beraiei ematen die ahotsa —baita kamera ere, pasarte batzuetan—, eta taldekideek ederki baliatzen dute gai ugariri buruz hitz egiteko. Gazteak izaki, bikote-harremanki toki handia hartzen dute elkarrizketetan; familiak berba egiten dute, eta beraien kabuz ibiltzeko daukaten gogoaz; lan munduaz; homosexualitateaz; Jainkoaz; down sindromea bizitzeko duten moduez. Eta barre egiten dute —asko—; eta negar; eta arazoak sortzen dira, eta konponbideak. Dokumentalak *reality-show* baten kutsua har dezake batzuetan, komedia batena beste batzuetan, baina etiketen gainetik, lan harrigarria da. Harrigarria, protagonisten etorriagatik eta kameraz ahaztuta etxean bezala jokatzeko duten gaitasunagatik.

John Andueza zuzendaria izan zen harritzen lehena. *Bilintx* film laburrari sari bat

***Simplemente* filmak
aurreiritzi asko puskatzen
lagun dezake, eskaintzen
duen begirada urrun
baitago ohiko
beraztasunetik**

eman ziotenean ezagutu zituen Despertar los Sentidos-eko kideak, eta haiekin trago bat hartzera joanda, berehala adierazi zioten gustura agertuko lirakeela film batean. Esan eta egin: filmatzen hasi zirenean nola ordainduko zuten argi ez bazeukaten ere, Puxtarri eta Lotura Films ekoiztetxeen laguntzarekin aurrera ateratu zen proiektua.

Hasierako gidoirik gabe egindako dokumentala da, ia 40 orduko filmaketetan protagonistek eraiki duten istorioa. Eta emaitzak aurreiritzi asko puskatzen lagun dezake, filmaren begirada urrun baitago ohiko beraz-

tasunetik eta politikoki zuzen izatetik. Askorentzat tabu izan daitezkeen gaiak natural-natural aurkezten zaizkigu —taldeko mutil batek aldizkari porno gay-ak bilatzeko daukan grina, barbarako—; gainera, dantza ikuskizuna prestatzeko lanean, taldekideen gaitasun sortzaileak azpimarratzen dira, izan ditzaketen mugen gainetik jauzi eginez.

Filmaren ibilbidea ez da Victoria Eugeniakoan bukatuko: martxoaren 3an Gasteizko Dendaraban izango dira; 18an Santanderren (Espainia); eta 28an Bilboko Arriaga antzokian. Emanaldi guztien aurretik koreografia eskainiko du Despertar los Sentidos-ek. Eta, gauzak Donostian bezala badoaz, ez litzateke harritzekoa filmaren ondoren ere protagonistak dantzan ikustea. ■

